

Lanbide Heziketarako

lankidetza-proposamena

2026 | 2027 ikasturtea





Edukia

SARRERA.....	3
SENTSIBILIZAZIO-SAIOAK.....	4
IRAKASLEEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA.....	7
METODOLOGIA BERRITZAILEAK.....	8
EKONOMIA KRITIKORAKO SARRERA.....	9
BALIABIDE DIDAKTIKOAK.....	11
EL NIDO.....	18
EKONOMOS.....	19
JARRI HARREMANETAN GUREKIN.....	20

Sarrera

Ekonomia bidezkoago baten alde lan egiten dugu, pertsonak eta natura ardatz dituenak.

Euskadiko Mugarik gabeko Ekonomialariak-etik uste dugu ekonomia **ongizate kolektibora eta planetaren zaintzara** bideratu behar dela. Horregatik, urteak daramatzagu hezkuntza-espazioetan ekimenak garatzen, **Ekonomia Sozial eta Solidarioa eguneroko errealitatearekin konektatutako ikuspegi praktikoa** batetik hurbilduz.

Gure ustez, hezkuntza funtsezko tresna da gizarte ekitatiboago, inklusiboago eta jasangarriago baterako eraldaketa sakona sustatzeko. Azken urteotan Bigarren Hezkuntzako (DBH eta Batxilergoa), Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikastetxeetan lan egin dugu, teoria eta praktika elkarren osagarri diren ikaskuntza-espazioak sortuz, **Ekonomia Sozial eta Solidarioa** ideia eskuraezina ez dela frogatzeko, pertsonen ongizatea eta ingurunearekiko errespetua bermatzeko gai den alternatiba bideragarria baizik.

Ikasgeletan esku hartzeko dugun moduak eta hezkuntza-formatuek **malgutasuna eta aniztasun metodologikoa** dituzte ezaugarri. Hainbat jarduera-eremutatik lan egiten dugu, eta proposatzen ditugun edukiak eta balioak ikasleek ulertzeko eta barneratzeko **tresna berritzaileak** erabiltzen ditugu. Sentsibilizazio-saioak egiten ditugu eztabaida eta hausnarketa sustatzeko; ikuspegi hegemonikoak zalantzan jartzen dituzten irakurketa eta analisi kritikoko dinamikak bultzatzen ditugu; eta parte hartzeko espazioak sustatzen ditugu, non ikasleek esperimentatu dezaketen eraldaketa soziala hurbileko eta eguneroko bizitzan ere hasten dela



| Sentsibilizazio-saioak

HELBURUAK ETA METODOLOGIA

HELBURUAK

- Egungo eredu ekonomikoari eta horrek gizartean, ekonomian eta ingurumenean dituen ondorioei buruzko begirada kritikoa sustatzea.
- Elkartasunari, justizia sozialari eta iraunkortasunari lotutako balioak sustatzea.
- Ikasleek alternatiba eraldatzaileen garapenean **aktiboki parte har dezaten** bultzatzea: proposamenak eta ekintzak ikasgelan eta hurbileko errealitatea.

METODOLOGIA

- **Ikuspegi parte-hartzailea eta dinamikoa:** interakzioa, ikaskuntza kolektiboa eta esperientzien trukea lehenesten ditugu, *Mentimeter* bezalako lankidetzaren tresnen bidez.
- **Benetako kasuak eta hurbileko adibideak:** benetako eredu ekonomiko bidezkoagoak, solidarioagoak eta eraldatzaileagoak aurkezten ditugu.
- **Sormen-tresnak:** parte-hartzea, hausnarketa kritikoa eta kontzeptuen ulermena bultzatzen duten talde-dinamikak, eztabaidak, jokoak eta ikus-entzunezko baliabideak.



| Sentsibilizazio-saioak

GAIKAK ETA EDUKIAK

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

Ba al dago ekonomia justuagoa eta jasangarriagoa eraikitzerik?


Egungo sistema ekonomikoak sortu-tako desberdintasunak aztertzen ditugu, eta pertsonen bizitza eta ongizatea erdigunean kokatzen dituzten eredu alternatiboak ezagutuzen ditugu. .



EKONOMIA FEMINISTA

Ekonomia ikuspegi feministatik aztertzea, genero-desberdintasunak eta bizitza eta ekonomia eusketeko zainketen garrantzia ikusaraziz.

Eredu ekonomiko tradizioaletan dauden botere-harremanak eta joerak zalantzan jartzea. Eredu ekonomiko eta sozial bidezkoagoak, inklusiboagoak eta ongizate kolektibora bideratuagoak lortzeko garrantziari buruz hausnartzea.



INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA

Ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harremana aztertzea, planeten mugak eta egungo eredu ekonomikoaren inpaktu sozial eta ekologikoak ezagututa. Baliabideen erabilerari, klima aldaketari eta ingurumen desberdintasunei buruz hausnartzea, ekoizpen eta kontsumo logika nagusiak zalantzan jarritz. Bizitzaren eta planetaren jasangarritasuna erdigunean kokatuko duten alternatiba ekonomikoak aztertzea.



| Sesiones de sensibilización

TEMÁTICAS Y CONTENIDOS

EKINTZAILETZA ERALDATZAILEA ETA CANVAS SOZIALA

Ekintzailatzaren kontzeptuari buruz hausnartzen dugu. Pertsonak eta guztion ongia lehenesten dituzten ekiteko beste modu batzuk deskubritzen ditugu, ekintzailatza eraldaketa sozialerako tresna gisa ulertuta.

Eraldaketa sozialeko, jasangarritasuneko eta berdinatsunea sustatzeko balioak dituzten proiektuak diseinatzen ikasten dugu. Canvas-a ideiak zehazteko eta ekimen bideragarri, solidario eta bidezko bihurtzeko tresna gisa erabiltzea.

INTERSEKZIONALITATEA

Diskriminazio eta zapalkuntza sozial mota desberdinei buruzko hausnar-keta sustatzea, ikuspegi feministeta-tik eta LGTBI+ mugimenduko ikuspe-gitik. Botere-harremanak eta horien arteko erlazioa aztertzea.

FINANTZA ETIKOAK

Egungo banku-sistemaren funtzio-namendua ezagutzea. Finantza-alternatiba gardenak, solidarioak eta espekulazio-logikatik kanpo daudenak aztertzea. Finantzaz Haratago sarearen parte gara, eta horrek auke-ra ematen digu beste erakunde bat-zuekin lankidetzan aritzeko, finant-za-hezkuntza kritikoa sustatzeko eta esperientziak partekatzeko.

EKONOMIA ZIRKULARRA

Egungo ekonomia linealaren ereduaren funtzionamendua aztertzen dugu, bai eta horrek sortzen dituen ondo-rioak ere. Ekonomia zirkularraren eredua ezagutzen dugu, jasangarriagoa, bidezkoagoa eta onuragarriagoa, bai ingurumenerako, bai gizarterako.

KONTSUMO ARDURATSUA

Gure kontsumo-ohituren ondorioei buruz hausnartzea eta alternatiba jasangarriak ezagutzea. Donostiako kontsumo arduratsuaren sarearekin, SARETUZekin, lankidetzan ari gara.

| Irakasleei laguntzeko zerbitzua

Hezkuntza eraldaketa-prozesu kolektibo gisa ulertzen dugu.

Hezkuntza eraldaketa-prozesu kolektibo gisa ulertzen dugu, ikasleak eta irakasleak inplikatzeko dituen, pentsamendu kritikoa eta haren transmisioa bultzatzeko duten tresnak sustatuz.

Ikasturte honetan, irakasleei laguntzeko zerbitzu bat eskaintzen dugu, eduki kritikoak eta metodologia parte-hartzaileak txertatzeko, eta, horretarako, banakako laguntza emango diegu interesa duten irakasleei

Nahikoa da posta elektronikoz harremanetan jartzea, > proposamenak edo aholkularitza eskatzeko:

Zerbitzu hori irakasleek beren ikasgelako errealitateari eta premia espezifikoari buruz duten esperientzia eta ezagutza oinarritzen da, eta, horri esker, modu egokiagoan bideratu daitezke eskaintako proposamenak eta baliabideak. Gure abiapuntua da material eta dinamika ugari ditugula, eta, beraz, batzuetan zaila izan daiteke testuinguru bakoitzerako egokienak hautatzea. Horregatik, irakasleek egin dezaketena da idatzi zer gai edo kontzeptu landu nahi duten, eta beren mailari, testuinguruari eta denbora erabilgarriari egokitutako baliabideak eta jarduerak proposatzen dizkiegu, materialak egokitzeko eta euskaratzeko laguntza eskaintzeaz gain.



ecosfron.euskadi@ecosfron.org



| Metodologia berritzaileak

ZUBI EKINTZA

Ekonomia Sozial eta Solidarioari lotutako ekintzailetzako kasu errealak ikasgelara hurbiltzen ditugu, ikasleek lankidetzan, inpaktu sozialean eta jasangarritasunean oinarritutako ekiteko beste modu batzuk daudela erakusten duten esperientziak bertatik bertara ezagut ditzaten. Ekimen horietako asko emakume migratuek eta ibilbide desberdinak dituzten beste pertsona batzuek gidatzen dituzte, eta ESSak aukerak nola sortzen dituen eta komunitate inklusiboagoak nola indartzen dituen erakusten dute.

IKASKETA ZERBITZUA

Ikasketa Zerbitzuaren metodologiak konbinatu egiten ditu nahita ikastea eta komunitateari zerbitzua ematea, hausnarketa eta ebaluazioa integratuz hezkuntza-prozesuaren funtsezko zati gisa. Ingurunean benetako eragina duten proiektuen bidez, ikasleek ezagutzak eskuratzeaz gain, konpromiso sozialarekin lotutako gaitasun pertsonalak eta sozialak ere garatzen dituzte. ESSrekin lotzen da, inguruko erakundeen behar zehatzei erantzuten dieten proiektuak eginez, eragileen arteko lankidetzak bultzatuz eta lankidetzak, elkartasuna, ekitatea eta guztion ongiarekiko konpromisoa eta antzeko balioak praktikan jarritz.


ETHAZI METODOAREKIN KOOPERATIBA JASANGARRIAK SORTZEA

ETHAZI metodologiaren bidez (Erronketan oinarritutako ikaskuntza aktiboa eta kolaboratiboa - Errendimendu Handiko Zikloak), kooperatiba jasangarriak sortzeko proiektu bat garatzen dugu. Kooperatiba horiek diziplina artean eratzen dira, prestakuntza-moduluen artean, eta bakoitzak bere gaitasun espezifikoak ematen ditu: esparru juridikoa, teknikoa eta komunitarioa. Horrela, ziklo bakoitzak bere gaitasunetatik laguntzen du erronka komuna konpontzen. Proiektuaren azken emaitza kooperatiba jasangarriak sortzera bideratuta dago, benetako erronkak ebaztean eta lan eredu justu, jasangarri eta solidarioei lotutako gaitasun profesionalak garatzean oinarritutako ikaskuntza sustatuz.

| Ekonomia kritikoaren hastapenak

“Zer esan nahi du ekonomia ikasteak?” eskuliburuak Ekonomia aztertzeko funtsezko kontzeptuen berrikuspen kritiko bat planteatzen du, McGraw Hill argitaletxearen DBHko 4. mailako “Ekonomia eta Ekintzailatza” eskuliburuaren berrikuspenetik abiatuta.


Eskuliburuak berariazko edukiak bilatzeko aukera ematen die irakasleei, eta, horretarako, irakurketa edo hausnarketa kritiko eta kontzeptu horiek ikasgelan lantzeko berariazko baliabideak proposatzen dira. Horretarako, irakaskuntzako erabilera desberdinetara egokitutako kontsulta arin eta malgua errazten duen indize interaktibo bat du.



Era berean, eskuliburuak gai multzo bakoitzerako sintesi-jarduerak jasotzen ditu, ikaskuntza eta pentsamendu kritikoaren garapena jasotzera bideratutako ebaluazio-sistema batekin, baita adierazle sorta bat ere, irakasleek proposatutako materialen eta baliabideen kalitatea, egokitasuna eta inpaktua baloratu ahal izan dezaten.

Ekonomia feministak eta pentsamendu dekolonialak analisirako hainbat tresna ematen dituzte, egungo sistema ekonomikoari eusten dioten egiturazko desberdintasunak ulertzen laguntzeko. Ikuspegi horiek sartu nahi izan ditugu dokumentu honetan, ikasleek eta irakasleek landu ahal izan ditzaten eta gizarte bidezkoago eta ekitatiboago bat eraikitzen lagundu dezaten.

| Ekonomia kritikoaren hastapenak



HELBURUAK

- Ekonomiaren ulermena zabaltzea
- Pentsamendu kritikoa bultzatzea
- Gutxi ordezkaturako errealitateak ikusgarri bihurtzea
- Ekonomia eguneroko bizitzarekin lotzea

EKARPENAK

IKASLEENTZAT:

Eguneroko egoeretara hurbiltzea
Teoria heterodoxoak txertatzea
Gaitasun kritikoak garatzea
Gizarte- eta ingurumen-sentsibilizazioa

IRAKASLEENTZAT:

Material osagarriak
Praktika pedagogiko inklusiboak
Analisi feminista eta dekolonialerako tresnak
Hezkuntza-espazio ekitatiboagoak sustatzea
Irakaskuntza-edukiak eguneratzea



SARTU IRUDIA ERABILIZ,
ESTEKA

https://ecosfron.org/wp-content/uploads/2025/06/Aprender-economia_eus.pdf

| Baliabide didaktikoak

EKONOMIA ZIRKULARRA: Ekonomia arduratsu, ekitatibo eta solidario baterako bidean

Unitate didaktiko (UD) honen helburua Lanbide Heziketako eta Batxilergoko irakasleei laguntzeko tresna izatea da. Proposamena hizkuntza inklusibo, argi eta eskuragarriarekin egina dago, eta giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi batetik planteatzen da.

UD honen helburu nagusietako bat **Ekonomia Zirkularraren kontzeptua** lantzea eta garatzea da, **ikasleen interesa** sustatuz eta ikasleen parte-hartzea eta pentsamendu kritikoa bultzatuz. Proposamen horren bidez, ikasleek aukera izango dute egungo eredu ekonomikoari buruz kolektiboki hausnartzeko, eredu horrek gizartean eta ingurumenean dituen inpaktuak ulertzeko, eta **Ekonomia Zirkularraren printzipioak** modu kritikoa eta parte hartzailean ezagutzeko.



SARTU,
IRUDIAN SAKATUZ

<https://ecosfron.org/wp-content/uploads/2025/06/EsF-UD-Economia-Circular-EUS.pdf>

| Baliabide didaktikoak

EKONOMIA, FEMINISMOA ETA LGTBI+ ASKAPENA ELKAR EBAKIZ

Ekonomiaren, feminismoaren eta LGTBI+ kolektiboaren borroken arteko harremanari buruz modu kritikoan hausnartzera bideratutako unitate didaktikoa da. Proposamenaren abiapuntua **ikuspegi intersekzionala** da, honela ulertuta: pertsonen identitate eta errealitate ugari bizi dituztela, eta horiek elkar gurutzatzen direla eta beren esperientzia sozialak baldintzatzen dituztela.

Unitate honen bidez, **diskriminazio modu desberdinak** ulertu nahi dira, hala nola arrazismoa, sexismoa, LGTBfobia edo klasismoa, eta **ekonomia feministaren** ekarpenak ezagutu, bizitza eta zainketak erdigunean jartzen dituen delako. Gainera, **egungo sistemak bazterketak nola sortzen dituen** aztertu nahi da, eta **pinkwashinga** eta beste zenbait praktikatarako **begirada kritikoa** sustatu.



SARTU,
IRUDIAN SAKATUZ

<https://ecosfron.org/wp-content/uploads/2025/06/EsF-UD-Interseccionalidad-EUS.pdf>

| Baliabide didaktikoak

"ESScapeBox" JOKOA

Gamifikazioko hezkuntza-baliabide bat da, jolasaren bidez ikastera bideratua.

Hainbat erronka eta asmakizun ebatziz, parte-hartzaileek hainbat errealitate ezagutu ahal izango dituzte, bai eta finantza etikoen eta ekonomia solidarioaren eragin soziala eta eraldatzailea ere.

Baliabidea 5 kutxa eramangarritan antolatuta dago, ikastetxeetan erabiltzeko diseinatuta.



EZAGUTU GURE
ESScape
jolasa

- ✓ Finantza etikoen inguruan ikasteko joko dibertigarria.
- ✓ Bost kutxek osatzen dute, erraz eraman ahal izateko.
- ✓ 15 urteko gazteentzat.
- ✓ 50 minutu irauten du eta 3-5 laguneko taldeetan jolasten da.

Zure hezkuntza zentroan frogatu nahi duzu?
Idatziguzu: info@finantzazharatago.org





SARTU HEMEN

| Baliabide didaktikoak

ERRONKETAN OINARRITUTAKO ELKARLANEKO IKASKUNTZARAKO GIDA

Lanbide Heziketako irakasleei zuzendutako tresna praktikoa, labor eta irisgarria da, erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzako metodologiak aplikatzea errazteko.

Baliabide horretan, erabilitako metodologia eta ESStik duen aplikazioa jasotzen dira, planteatutako erronka nagusien deskribapen laburtuarekin batera. Gainera, ikasleek erronka horiei erantzuteko egindako lanen adibideak jasotzen ditu, bai eta MgEk zein ikasleek egindako balorazioak eta haien ondorioak ere.



SARTU HEMEN

| Baliabide didaktikoak

BESTE BALIABIDE BATZUK: Bideoak

ERRENTAREN FLUXU ZIRKULARRA. Nor falta da?

Ekonomia irakasten dugunean, errentaren fluxu zirkularra da lantzen dugun lehen kontzeptuetako bat. Eskema horrek modu sinplifikatuan adierazten du merkatu-ekonomiaren funtzionamendua, eta itxuraz orekatua eta itxia den sistema bat erakusten du. Hala ere, galdera garrantzitsu bat sortzen da: Zer elementu eta errealitate geratzen dira eredu horretatik kanpo?


#BESTE FINANTZA BATZUK: Finantza etiko eta solidarioak

Finantza-sistema lantzean, gutxitan aztertzen dira haren gizarte- eta ingurumen-inpaktuak, eta ez da alternatibarik aurkezten, hala nola finantza etiko eta solidarioak, hain zuzen ere gizartean eta ingurunean ondorio positiboak sortzera bideratuta daudenak.

[Euskara](#)

[Gaztelania](#)

#DesmontandoelFlujoCircular dentro de los hogares




[1. bideoa](#)

Etxeetan egiten diren etxeko lanak eta zaintza-lanak: Nori dagokio? Zer garrantzi du ekonomian?



[2. bideoa](#)

Homo solidaricus: Nor da homo economicus? Zer ondorio ditu indibidualismo metodologikoaren erabilerak?



[3. bideoa](#)

Sistema naturala: Zer ondorio ditu ez egoteak?

| Baliabide didaktikoak

BESTE BALIABIDE BATZUK: IREKI MALETATXO BAT, IREKI BEGIRADA BAT


MgEren maletatxoak irakasleei zuzendutako baliabide berritzaile eta didaktikoak dira, ekonomiaren lana ikuspegi kritiko eta parte-hartzaileetatik errazteko diseinatuak.

Maletatxo bakoitzak hainbat hezkuntza-material biltzen ditu, hala nola gida didaktikoak, jarduera interaktiboak, ikus-entzunezko baliabideak eta eztabaida-proposamenak. Ikasgela ekonomiari, gizarteari eta jasangarritasunari buruzko eztabaidarako, hausnarketarako, ikaskuntzarako eta eraikuntza kolektiborako gune bihurtzea du helburu

[Ekonomia Feministaren Maletatxoa](#)

[Ekonomia Jasangarrirako Maletatxoa](#)

[Ekintzailtza Sozial eta Solidarioko Maletatxoa](#)



| Baliabide didaktikoak

BESTE BALIABIDE BATZUK: IRAKASLE KRITIKOEN SAREA

RedEFES

Finantza etikoko eta hezkuntza eraldatzaileko irakasleen eta erakundeen arteko lankidetzarako espazioa, finantza-hezkuntza etikoari buruzko baliabideak eta esperientziak partekatzera bideratua.

RedEFES

Red por la Educación en las Finanzas Éticas y Solidarias

[RedEFES](#)



Finantzaz Haratago

Sare parte-hartzailea eta kolaboratiboa, finantza etikoen eta albernatioben hezkuntza Euskadin eta beste lurralde eta nazioarteko testuinguru batzuetan sustatzeko eta zabaltzeko helburua duena.



[Finantzaz Haratago](#)

| Baliabide didaktikoak

BESTE BALIABIDE BATZUK: Ireki maletatxo bat, ireki begirada bat

MgEren maletatxoak irakasleei zuzendutako baliabide berritzaile eta didaktikoak dira, ekonomiaren lana ikuspegi kritiko eta parte-hartzaileetatik errazteko diseinatuak.

Maletatxo bakoitzak hainbat hezkuntza-material biltzen ditu, hala nola gida didaktikoak, jarduera interaktiboak,

ikus-entzunezko baliabideak eta eztabaida-proposamenak. Ikasgela ekonomiari, gizarteari eta jasangarritasunari buruzko eztabaidarako, hausnarketarako, ikaskuntzarako eta eraikuntza kolektiborako gune bihurtzea du helburu.



Tokiko garapena
Bizitza erdigunean
Ongizate kolektiboa

<https://elnido.ecosfron.org>



| EKONOMOS

Estatu mailako ekonomia irakasleentzako buletina

BHIko eta LHko irakasleei bereziki zuzendutako informazio-buletina kaleratu dugu.

**Eman izena
EKONOMOSen!**



Buletin hau BHI eta LHko ekonomiako irakasleei pertsonak eta planeta erdigunean jarriko dituen ekonomiari buruz hausnartzen lagunduko duten baliabideak emateko asmoarekin sortu da.

Horren atzean

- [Mugarik gabeko Ekonomialariak](#)
- [“Econoplasta”k](#)
- [Finantza Etikoak](#)
- [Justizia Fiskalaren Plataforma daude](#)



SAKATU SARTZEKO

Nahi al duzu elkarrekin lan egitea ideia horiek zure ikastetxean ezartzeko?

Irakasle talde aktibo baten sorrera bultzatzen ari gara, gure hezkuntza-proposamenen inguruan lankidetzagune parte-hartzaile bat eraikitzeko. Espazio horri esker, garatzen ditugun saioei, landutako edukiei eta ikasleen behar espezifikoiei buruzko hausnarketak, esperientziak eta ekarpenak partekatu ahal izango ditugu.

[Irakasle kritikoen sarea](#)



EGIN KLIK INFORMAZIO
GEHIAGO LORTZEKO

Aurkeztutako proposamen batek edo edukiren batek zure interesa piztu badu eta gurekin harremanetan jarri nahi baduzu, kanal hauen bidez egin dezakezu:



ecosfron.euskadi@ecosfron.org

722 371 633



BILBOKO EGOITZA

Harrobia Plaza 4, 2. solairua
48003, Bilbo, Bizkaia



Tel. 722 37 16 33



ecosfron.euskadi@ecosfron.org



DONOSTIAKO EGOITZA

Iruresoro Plaza, 2, 4, 20012
Donostia, Gipuzkoa



Tel. 722 37 16 33



ecosfron.euskadi@ecosfron.org

